



KUTXA FUNDAZIOARENren ESTATUTUAK

2016ko ekainaren 24

AURKIBIDEA

I. TITULUA.- Xedapen Orokorrak.....	4
1. artikulua.- Izena.....	4
2. artikulua.- Izaera eta Xedeak.....	4
3. artikulua.- Gobernantza	4
4. artikulua. Arau Erregimena.....	4
5. artikulua.- Helbidea.....	4
6. artikulua.- Eremua	4
7. artikulua.- Iraupena.....	5
8. artikulua – Xedea.....	5
9. artikulua.- Fundazioaren izaera.....	6
10. artikulua.- Jarduteko erak.....	6
12. artikulua.- Jardueren publizitatea.....	6
13. artikulua.- Enpresa-jarduerak.....	6
14. artikulua.- Onuradunak.....	6
15. artikulua.- Laguntzen zertarakoa.....	7
II. TITULUA.- Fundazioaren organoak	7
16. artikulua.- Fundazioaren gobernua.....	7
17. artikulua.- Patronatuaren izaera.....	7
18. artikulua.- Ahalmenak.....	7
19. artikulua.- Karguen izaera.....	7
20. artikulua.- Osaera.....	7
21. artikulua.- Lehendakaritza	8
22. artikulua.- Lehendakariordetza	8
23. artikulua.- Idazkaritza.....	8
24. artikulua.- Zuzendaritza	8
25. artikulua.- Batzorde Delegatuak, Delegazioak eta Ohorezko Patronoak.....	9
26. artikulua.- Bilkurak.....	10
27. artikulua.- Autokontratatzeko debekua.....	11
III. TITULUA- Ondarea eta Erregimen Ekonomikoa	11
28. artikulua.- Fundazioaren ondarea.....	11
29. artikulua.- Ondasunak eta errentak.....	11
30. artikulua.- Ondare-doikuntzak.....	12
31. artikulua.- Ondasunen Inskripzioa eta Inbentarioa.....	12
32. artikulua.- Aurrekontua eta Jardun Plana.....	12
33. artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa.....	12

34. artikulua.- Auditoria.....	13
35. artikulua.- Azkentzea.....	13
36. artikulua.- Estatutuak aldatzea.....	13

I. TITULUA.- Xedapen Orokorrak

1. artikulua.- Izena.

Estatutu hauen xede den Fundazioak, dagoeneko eratuta dagoena Donostiako Notario José Maria Segura Zurbano jaunaren aurrean 1991ko martxoaren 8an bere protokoloaren 672. zenbakiarekin sinatutako eskritura publikoaren indarrez, ***kutxa Fundazioa*** du izena.

2. artikulua.- Izaera eta Xedeak

Fundazioak nortasun juridiko propioa du eta erabateko ahalmena maila juridikoan nola jardutekoan, legeek eta Estatutu hauetan bilduta dauden Xedapenek ezarritako mugekin.

Beraz, Fundazioak honako hau egin dezake, adibide gisa eta inolako mugarik gabe: mota guztietako ondasunak libreki eskuratu, eduki, kontserbatu, atxiki, administratu, besterendu, trukatu, kargatu eta, oro har, erabili, eraldatu eta bihurtu, mota guztietako agintzak eta kontratuak sinatu, kreditu-eragiketak itundu, ondasunak eta eskubideak bete, ukatu eta onartu, baita bidezko diren prozedurak sustatu, aurkaratu, jarraitu eta atzera egin ere, eta mota guztietako eskubide, egintza eta salbuespenak libreki egikaritu Justizia Epaitegi eta Auzitegi Arruntetan eta Berezietan, Administrazio Publikoaren Organismo eta Egoitzetan, eta Estatuko, Probintziako eta Udalerriko beste edozein organismoren aurrean, eta estatuko nahiz nazioarteko zuzenbide publikoko nahiz zuzenbide pribatuko gainerako Korporazio, organismo eta Erakundeen aurrean.

3. artikulua.- Gobernantza

Fundazio-borondatea eta Fundazioari lotutako guztia betetzea Patronatuari dagokio eskusiboki, eta Patronatuari ematen zaio haren gobernua, fundazioei buruz indarrean dagoen araudia kontuan izanik.

4. artikulua. Arau Erregimena.

Fundazioak Erakunde Fundatzailearen borondatea beteko du, zuzenean edo zeharka Estatutu hauetan eta eraketa-eskrituran adierazita dagoena, eta era berean, patronatuak ordenamendu juridikoaren arabera libreki ezartzen dituen xedapenak beteko ditu, adierazitako borondatea interpretatu eta garatuz.

5. artikulua.- Helbidea

Erakundearen helbidea Donostian dago, Mikeletegi Pasealekuko 79. zenbakian, Arbide Dorreetan (Gipuzkoa). Patronatuak helbide hori lekualdatu ahal izango du, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mugen barruan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzak betetzen badira.

6. artikulua.- Eremua

Fundazioak Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten ditu bere jarduerak nagusiki, eta bere jarduna Euskal Autonomia Erkidego osora eta, hala badagokio, beste lurralde batzuetara ere zabal dezake, Patronatuak hori erabakitzen badu.

7. artikulua.- Iraupena.

Fundazioaren iraupena mugagabea izango da, baina Estatutuetan aurreikusitako kasuetan azkendu ahal izango da.

8. artikulua – Xedea.

kutxa Fundazioaren helburu nagusia, Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren Gizarte Jarduera eta helburu nagusi hori hobeto gauzatzeko Patronatuak beharrezko edo komenigarritzat jotzen dituen jarduera guztiak kudeatzea eta administratzea da.

Bereziki, **kutxa Fundazioak**, bere Patronatuaren bitartez, gutxienez ere honako eginkizun hauek beteko ditu:

- Banku Fundazioaren Patronatuarekin koordinatzea Gizarte Ekintzaren alorrean, Banku Fundazioak Gizarte Ekintzarako egiten duen zuzkidura bere gain hartzeko eta hori betetzea lortzeko.
- Banku Fundazioaren Gizarte Ekintza osoaren plangintza eta betearazpen orokorra, erakundeekin eta hirugarrenekin dagoen solaskidetza bere gain hartuz.
- Banku Fundazioaren Gizarte Ekintzari atxikitako Ondarea zaindu, kudeatu eta administratzea, Fundazioak jakinarazten dionaren arabera.
- Ekonomia- eta finantza-kontrola, Gizarte Ekintzaren Kontabilitate Orokorraren zentralizazioaren bitartez.
- Gizarte Ekintzaren Komunikazio Plana lantzea, Banku Fundazioaren Komunikazio Arloarekin koordinatuz.
- Giza baliabideak kudeatzea.

Jarduera horiek, edonola ere, interes orokorreko xedeak lortzera bideratuko dira, hala nola: gizarte-laguntza eta gizarteratzea, xede zibikoak, hezkuntza, kultura, zientzia, kirola, sanitatea, lana, garapenerako laguntza, boluntariotzaren eta elkartasunaren sustapena, ingurumenaren babeseta eta iraunkortasunaren kulturaren sustapena, arrazoi fisikoak, sozialak edo kulturalak direla-eta baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen sustapena eta arreta, tolerantzia eta gizarte-balioen sustapena, informazioaren gizartearen garapena eta ikerketa zientifikoa eta teknologia-garapena.

Ikerketa zientifikoaren eta garapen teknologikoaren esparruan bereziki, **kutxa Fundazioak** bere gain hartzen du Miramongo Zientzia Museoaren (Eureka-Zientzia Museoa) kudeaketa eta administrazioa. Kudeaketa hori zuzenean edo zeharka eraman ahalko da Fundazioak gehiengoarekin partaidetutako merkataritza-sozietate baten bidez.

Ingurumenaren babesaren eta iraunkortasunaren kulturaren sustapenaren esparruan, eta Gipuzkoako garapen iraunkorrean laguntzeko, jendeari kontzientziatik ekintzarako urratsa egitea erraztuz, **kutxa Fundazioak** erreferentziazko parke tematiko bat kudeatuko du prestakuntzarako eta ingurumen-hezkuntzarako Arteaga Zabalegi Finkan, orain Ekogunea deitzen zaiona, eta ildo horretan bertan proiektuak sustatuko ditu lurraldeko udalekin egindako aliantzen bidez. Kudeaketa hori zuzenean edo zeharka eraman ahalko da Fundazioak gehiengoarekin partaidetutako merkataritza-sozietate baten bidez.

9. artikulua.- Fundazioaren izaera.

Fundazioak finantzaketa-, zerbitzu- eta sustapen-izaera hirukoitza izango du, eta kasu bakoitzean aurreko artikuluetan ezarritako xedek eskatzen duen jardueraren arabera jardun ahal izango du.

10. artikulua.- Jarduteko erak.

kutxa Fundazioak, bere xedek garatzeko, modu desberdinetan jardun ahal izango du, garatu nahi den proiektu zehatza kontuan izanik. Horrela:

- a) Gizarte Jarduera propioa. kutxa fundazioak Gizarte Jardueraren proiektu gehienek kudeaketa bere gain hartuko du zuzenean. Gizarte-ekintzaren proiektu propio horiek osorik **kutxa Fundazioak** kudeatu ahal izango ditu, edo bestela, proiektuak hala eskatzen duenean, horretarako eraturako erakunde bitartez, zeinek unitate autonomiadun bezala jardungo duten arazo operatiboak eta eraginkortasunekoak direla medio. Erakunde horiek, edozein kasutan, **kutxa Fundazioak** finantzatu eta kontrolatuko ditu.
- b) Gizarte Jarduera Lankidetzan. Osagarri gisa, **kutxa Fundazioak** hirugarrenek gidatzen dituzten eta Gizarte Ekintzan barne har daitezkeen beste zenbait proiektutan lagundu ahal izango du, horiek finantzatu eta haiekin sinatzen den Lankidetzaren Hitzarmenean adierazitako helburuak betetzen direla zainduz.

11. artikulua.- Fundazioaren ondarea.

Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunek eta eskubideek Fundazioaren izenean egon beharko dute, eta fundazioko Inbentarioan azaldu beharko dute, eta hala badagokio, dagozkien Erregistroetan jaso beharko dira.

12. artikulua.- Jardueren publizitatea.

Behin-behineko onuradun eta interesdunek Fundazioaren jardunen berri izan dezaten, Patronatuak bere helburu eta jarduerari behar adinako publizitatea emango die.

13. artikulua.- Enpresa-jarduerak.

- 1º) Fundazioak, bere kabuz, merkataritza- edo industria-jarduerak gauzatu ahal izango ditu, fundazio-xedeei lotuta daudenean edota horien zerbitzura daudenean.
- 2º) Gainerako kasu guztietan, beren bazkideen erantzukizuna mugatuta duten sozietateen bitartez egin beharko ditu jarduera horiek, gizarte-ekonomiako sozietateak barne.
- 3º) Artikulu honetan bildutako jardueren berri eman beharko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari.

14. artikulua.- Onuradunak.

Fundazioaren onuradun izan daiteke haurren, gazteen, familiaren, pertsona helduen eta enpresa txiki eta ertainen mundua osatzen duen edozein pertsona fisiko edo erakunde, gizarte-premiaren, diskriminaziorik ezaren, inpartzialtasunaren eta ekonomia-baliabide mailaren irizpideak kontuan izanik. Ondorioz, bere laguntzak interes orokorrari mesede egiteko moduan orientatuko ditu.

Fundazio-xedeak Fundazioaren zuzeneko kudeaketarekin edo beste Erakunde edo pertsona batzuen zerbitzuak kontratatuz lor daitezke.

15. artikulua.- Laguntzen zertarakoa.

Estatutuetan eta legean ezarritakoaren arabera eta patronatuaren irizpidea kontuan izanik laguntzea merezi duten pertsona edo erakundeei emango dizkie bere etekinak edo laguntzak Fundazioak, eta horrela, inork ezin izango du alegatu, ez indibidualki ezta kolektiboki ere, Fundazioaren aurrean etekin edo laguntza horiek gozatzeko eskubidea, eta ezin izango du inposatu horiek pertsona jakin batzuei ematea.

II. TITULUA.- Fundazioaren organoak

16. artikulua.- Fundazioaren gobernua.

Fundazioaren gobernua, administrazioa eta ordezkaritza Patronatuari ematen zaio eskusiboki, eta haren kideak Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera izendatuko dira; kide horiek Estatutuetan ezarritako moduan egikarrituko dituzte dagozkien eskumenak.

Patronatuari dagokio bere establezimenduen edo delegazioen egoitzak ezartzea, halakorik balego.

17. artikulua.- Patronatuaren izaera.

Fundazioaren Patronatuak esleituta dituen gobernu, ordezkaritza eta administrazioa ahalmen guztiak egikarrituz, egitate, egintza eta negozio juridiko mota guztiak egin ahal izango ditu, formalitate berezirik egin gabe, eta Fundaziotik kanpoko agintarien baimena edo esku-hartzea eskatu beharrik gabe, betiere Fundazioei buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez.

18. artikulua.- Ahalmenak

Fundazioaren organoak bere xedeak eraginkortasunez betetzeko zuzenbidean beharrezkoak diren botere eta ahalmen guztien titular eskusiboak izango dira, eta beren eskumena Estatutu hauen interpretazioari eta Fundazioaren funtzionamenduan sor daitezkeen gorabehera guztien ebazpenari lotutako gai guztietara hedatuko da, inolako mugarik gabe.

19. artikulua.- Karguen izaera.

Patronatuaren karguak doakoak izango dira, beren eginkizunak betetzean gertatzen diren gastuen ordainketa aparte utzi gabe, betiere behar bezala justifikatuta badaude.

20. artikulua.- Osaera

Fundazioaren Patronatua osatuko dute aldi berean Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuko kide direnek, honako berezitasun honekin: Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren Patrono diren pertsona juridikoen kasuan, **kutxa Fundazioaren** Patronatuko kide izango dira haiek Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuan ordezten dituzten pertsona fisikoak soilik.

Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioaren Zuzendari Nagusia **kutxa Fundazioaren** Patronatuaren bileretara joan ahal izango da beharrezkotzat edo egokitza jotzen duenean, eta bertan hitza izango du baino botorik ez.

21. artikulua.- Lehendakaritza

Fundazioaren Patronatuaren Lehendakari izango da Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuaren Lehendakari dena. Lehendakariak kalitate-botoa izango du berdinketak hausteko Patronatuak eztabaidatzen dituen erabakiei buruzko bozketetan.

Patronatuaren Lehendakariak izango du Fundazioaren gobernu-organo horretako goreneko ordezkari, eta aipatutako organoaren karguari atxikitako eta Estatutu hauek berari esleitutako ahalmenez gain, Patronatuaren eta Fundazioaren beste organo batzuetatik eratorritako erabakietako egintza eta kontratu guztietan Fundazioa ordezkatu beharko du, baita sortzen diren auzietan, espedienteetan, administrazio, gobernu, judizio bidezko, eta judizioz kanpoko gaietan ere, eta horretarako Prokuradoreei edo Abokatuei ahalordeak eman ahal izango dizkie.

22. artikulua.- Lehendakariordetza

Fundazioaren Patronatuaren Lehendakariorde izango da Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuaren Lehendakariorde dena.

Lehendakaria ez badago, gaixorik badago edo kargua hutsik badago, haren funtzioak Lehendakariordeak hartuko ditu bere gain, eta, halakorik ezean, Patronatuko kiderik zaharrenak.

23. artikulua.- Idazkaritza

Patronatuak Fundazioaren Idazkari kargurako izendatuko du, Patronatuko kidea izango ez dena, Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioaren Idazkari dena, eta bilkuren akta jasoko du Lehendakariaren ontzat emanarekin, akta-liburuan idatziko du, eta liburu hori zainduko du.

Halaber, Patronatuak Idazkariorde izendatuko du, Patronatuko kidea izango ez dena, Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioaren Idazkariorde kargua duena.

Idazkaria ez badago, gaixorik badago edo kargua hutsik badago, haren funtzioak idazkariordeak hartuko ditu bere gain, eta, halakorik ezean, Patronatuak, erabaki bidez, Fundazioako langile bat gaitu ahal izango du aldi baterako, idazkari-funtzioak bete ditzan.

24. artikulua.- Zuzendaritza

Patronatuak Zuzendari bat izendatuko du, eta Patronatuak hartutako erabakien jarraipena egitea eta erabaki horiek betetzea aginduko zaio. Agindu hori ondo bideratzeko, egiteko hori betetzeko beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide materialak izan beharko ditu Zuzendariak.

Izendatzen dutenean bestelakorik zehazten ez bada, honako oinarrizko eginkizun hauek beteko ditu Zuzendariak, Patronatuaren esanbidezko erabaki bidez:

- a) Patronatuak hartutako erabaki eta norabideak egikaritzea.
- b) Fundazioaren zerbitzuak zuzentzea, beharrezkoak diren antolamendu-eginkizun guztiak bere gain hartuz, Fundazioaren helburuak hobeto lortzeko.
- c) Proiektuak, azterlanak eta zerbitzuak kontratatzea, Fundazioaren helburuen arabera.
- d) Patronatuak onartutakoan, ekitaldi ekonomiko bakoitzean Fundazioak egin ditzakeen jardun-programak prestatzea, proposatzea eta, kasuan kasu, zuzentzea.
- e) Fundazioaren instalazio, zerbitzu edo jarduera berriei buruzko proiektu guztiak aurkeztea Patronatuak onar ditzan, baita egungoen zabalkuntza edo zaharberritzea ere.
- f) Daukaten garrantzia kontuan izanik, egoki iritzitako lankidetzak-, laguntza- eta eskuratze-kontratuak idaztea eta kontratu horiek egiteko proposatzea Patronatuari.
- g) Zerbitzuen jarduera guztiaren Kontabilitate Orokorra eta Osagarria antolatzea, baita kobrantza eta ordainketen kudeaketa ere.
- h) Fundazioaren giza baliabideak antolatu eta kudeatzea, Fundazioko langile, teknikari eta administrari guztiak kontratatzeko eta kargutik kentzeko ahalmenarekin, baita beren zerbitzuak Fundazioarentzat ematen dituzten bestelako profesional eta kanpo-aholkulariak ere.
- i) Ordainketak agintzea eta Fundazioaren banku-kontuak erabiltzea Patronatuak espresuki finkatutako mugekin.
- j) Fundazioaren Urteko Aurrekontuak prestatu eta Patronatuari aurkeztea, onar ditzan, baita horien likidazioa ere Fundazioen Erregistroan aurkezteko.

Zuzendariaren izendapenak iraupen mugagabea izango du, Patronatuak hura edozein unetan, ebazpen arrazoituaren bidez, kargutik kentzea erabakitzeko aukera aparte utzi gabe.

Bere eginkizunak hobeto betetzeko, Zuzendaria bertaratu egingo da, ahotsarekin eta botorik gabe, Patronatuak egiten dituen bilkura guztietara, non eta patronatuak berak zehazki beste gauzaren bat erabakitzen ez badu.

25. artikulua.- Batzorde Delegatuak, Delegazioak eta Ohorezko Patronoak.

Bere kide batean edo hainbatetan delegatu ahalko ditu Patronatuak bere ahalmen guztiak, edo batzuk, honako hauek izan ezik: urteko kontuak eta aurrekontuak onartzea, kudeaketa arruntetik kanpo dauden ekintzak edo Babesletzaren baimena behar dutenak, baita aplikatzekoa den araudiak ezartzen duen beste edozein.

Goragoko paragrafoan adierazitako mugak kontuan izanik, Batzorde Delegatu eta Betearazleak eratu ahalko ditu Patronatuak, kasu bakoitzean zehazten diren ahalmenekin, hala nola ahalordetu orokorrak edo bereziak izendatzea, eginkizun mankomunatu edo solidarioak dituztela.

Delegazio eta ahalordetze orokorrak, baita dagokien baliogabetzea ere, Fundazioen Erregistroan jaso beharko dira.

Era berean, Patronatuak Ohorezko Patronoak izendatu ahal izango ditu. Ohorezko Patronoari dagokion ohorezko tituluarekin izendatu dira Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioan Ohorezko Patrono ere direnak.

Ohorezko Patronoak Patronatuaren bileretara/bilkuretara bertaratu ahal izango dira eta bertan hitz egiteko eta aztertzen diren gaiei buruzko iritzia emateko eskubidea izango dute, baina ez dute inolako kasutan boto-eskubiderik izango. Edonola ere, Ohorezko Patronoak Patronatuko gainerako kideen jardun-arau berberetara lotuta egongo dira.

Ohorezko Patronoaren kargua doakoa izango da eta biziarteko izaera izango du, salbu eta Patronatuak kargugabetzea erabakitzen badu edo Ohorezko Patronoak Zuzenbidean onartutako edozein bitarteko baliatuz dimisioa aurkezten badu.”

26. artikulua.- Bilkurak.

Patronatuaren bilkurak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.

Patronatuak bere funtzioak eraginkortasunez betetzeko beharrezkoa den maiztasunarekin egingo ditu bilkura arruntak, eta gutxienez hiru hilean behin, Lehendakariak deialdia egin ondoren.

Patronatua Lehendakariak edo haren ordezkariak beharrezkotzat hartzen duenean edota kideen herenek idatziz eta azertu beharreko gaiak zehatz-mehatz adieraziz eskatzen dutenean bildu ahal izango da. Deialdia egiteko betebeharra Lehendakariaren ustez premia egiaztatua dagoenean eta bilera Patronatuaren eskumeneko arlo garrantzitsuei lotuta dagoenean baino ez da izango.

Deialdia egiteko eskatzen den kasuan, Patronatuko Lehendakariak lau (4) egun baliouduneko gehieneko epean egingo du bilkurarako deialdia, eta bilkura deialdia egin eta hogeita lau (24) ordutik hirurogeita hamabira (72) bitarteko tartean egingo da. Gai-zerrendan, eskaera osatzen duten eta Lehendakariaren ustez premia-zerrendak diren eta Patronatuaren eskumeneko arlo garrantzitsuei lotuta dauden gaiak sartuko dira.

Patronatua, halaber, izaera unibertsalez bildu ahal izango da patrono guztiak bertaratu edo ordezkatu egonik aho batez ezohiko bilkura egitea erabakitzen dutenean (aho batez ezartzen duten gai-zerrendarekin).

Deialdia posta elektronikoki bidez edo jaso dela adierazteko aukera emango duen beste edozein baliabideren bidez egingo da. Bertan, bileraren lekua, eguna, ordua eta gai-zerrenda adieraziko dira, eta dagokion dokumentazioa erantsiko zaio.

Ohiko bilkuretarako deialdia lau (4) egun balioudun aurretik egin beharko da gutxienez. Ezohiko bilkuren kasuan, berriz, deialdia baliokoa izango da gutxienez hogeita lau (24) ordu lehenago egin bada, izaera unibertsaleko bilerei dagokienez ezarritakoa aparte utzi gabe.

Deialdiaren eta patronoari eman beharreko edozein komunikazioaren ondorioetarako, patronoek kargua onartzen dutenean Fundazioari ematen dioten helbide elektronikoa erabiliko da, eta, horri dagokionez aldaketarik izanez gero, Fundazioari jakinarazi beharko zaio.

Bilerak helbide sozialean egingo dira, baina Lehendakariak erabakitzen duen beste lekuren batean ere egin ahal izango dira.

Gainera, bilkurak hainbat lekutan egin ahal izango dira aldi berean, betiere ikus-entzunezko edo telefono bidezko baliabideekin leku horiek denbora errealean elkarrekin jarduteko eta komunikatzeko aukera, eta, beraz, egintzaren batasuna ziurtatzen bada. Kasu horretan, konektatzeko sistema eta, hala badagokio, bileran egoteko eta parte hartzeko baliabide teknikoak eskuragarri dauden lekuak jasoarazi beharko dira deialdian. Erabakiak Lehendakaria dagoen tokian hartutzat joko dira.

Idazkariak jasoko du Patronatuen bileren dagokien akta, eta Lehendakariak sinatuko du. Erabakiak Akta Liburuan transkribatuko dira.

27. artikulua.- Autokontratatzeko debekua.

Patronatuko kideek ezin izango dute Fundazioarekin kontraturik egin, beren izenean edo hirugarren baten izenean dela ere, salbu eta Babesletzak horretarako baimena ematen badu.

III. TITULUA- Ondarea eta Erregimen Ekonomikoa

28. artikulua.- Fundazioaren ondarea.

Edozein motatako ondasunek eta eskubideek osatu ahal izango dute Fundazioaren Ondarea, Legeek ezartzen dituzten mugekin.

Bereziki, honako hauek osatuko dute Fundazioaren ondarea:

- a) Fundazioaren eskrituran bildutako hasierako hornidura.
- b) Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioak, kasuan kasu, Fundazioaren alde egiten duen fundazio-hornidura.
- c) Edozein administrazio publiko edo erakunde pribaturekin ezartzen diren Hitzarmenen ondoriozko diru-sarrerak.
- d) Fundazioak egiten dituen jardueren ondoriozko diru-sarrerak, baita eman ditzakeen zerbitzuen ordainsariak ere, indarrean dagoen legeriaren arabera.
- e) Zuzenbidean onartutako baliabideen bitartez, aurrerantzean eskuratzen duen beste edozein ondasun edo eskubide; eta bereziki, beste pertsona, organismo eta erakundeei ematen dizkieten legatu, dohaintza, diru-ekarpen eta diru-laguntzen arabera. Dohaintza, legatu eta jaraunspenen onarpena Babesletzari jakinarazi beharko zaio.
- f) Bere ondarearen ondoriozko emaitza edo errentak, produktu edo mozkinak.
- g) Beste edozein baliabide legezko aplikazio-esparruaren barnean.

29. artikulua.- Ondasunak eta errentak.

Fundazioaren ondasunak eta errentak zuzenean eta berehalakoan fundazioko helburuak betetzeari atxikitzat joko dira, fundazio-xedeak egiteko inolako pertsona edo erakunderik tartekatatu gabe.

30. artikulua.- Ondare-doikuntzak.

Egoera ekonomikoek hala gomendatzen badute, edozein unetan, eta behar adina bider, Fundazioak bere kapitalean beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak, eraldatzeak edo bihurketak egin ahal izango ditu, nahiz eta Fundazioaren kapitalaren balio nominalari eutsi, balio efektiboa edo erosteko ahalmena murriztea saihestearren, eta horregatik, hurrengo belaunaldiek aprobetxatzeko, Patronoek ahalmen horiek baliatzea gomendatzen da.

31. artikulua- Ondasunen Inskripzioa eta Inbentarioa.

Fundazioa osatzen duten ondasunen zaintza ziurtatzeko, honako arau hauek beteko dira:

- a) Ondasun higiezinak eta eskubide errealak Fundazioaren izenean jasoko dira Jabetza Erregistroan.
- b) Fundazioaren ondasun guztiak Ondarearen Erregistro Liburuan inbentariatuko dira.

32. artikulua. Aurrekontua eta Jardun Plana.

Urtero Diru-sarreraren eta Gastuen Aurrekontu bat egingo da hurrengo ekitaldirako, eta Patronatuari aurkeztuko zaio onar dezan.

Diru-sarreraren aurrekontuak aurreikuspenen arabera Fundazioaren ondasunek sortuko dituzten etekin guztiak bilduko ditu.

Gastuen aurrekontuak ekitaldian egin behar diren gastuen aurreikuspena barne hartuko du, gutxienez ere honako hauek bilduz: Fundazioaren ondarearen produkzio-, kontserbazio- eta aseguru-gastuak; langile- eta material-gastuak eta gainerako administrazio-gastuak; ondare-baloreen amortizazio-gastuak horien balio-galeraren edo galtzearen ondorioz, eta oro har, Fundazioaren xedeei aplikatu behar zaizkien kopuruak.

Ekitaldian zehar, patronatuak bidezkotzat edo komenigarritzat jotzen dituen aldaketak sartu ahal izango ditu aurrekontuan, bete behar diren arreta eta premietara egokitzeko, betiere diru-sarrerak gainditu gabe. Aldaketa horiek hurrengo bilkuran Batzarrari aurkeztuko zaizkio, onartzeko.

Urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Patronatuak hurrengo ekitaldiari dagokion Diru-sarreraren eta Gastuen Aurrekontua aurkeztuko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari, hori azaltzen duen Memoria batekin batera.

33. artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa.

Ekitaldi bakoitzaren amaieran, inbentarioa, egoera-balantzea, eta emaitzen kontua egingo ditu Patronatuak, eta horietan Fundazioaren ondarearen, ekonomiaren eta finantzen egoerak azalduko ditu, urtean egindako jardueren memoriarekin batera, baita ondarearen ekonomia-kudeaketa ere, Fundazioaren helburu eta legezko aginduen betearazpena jakinarazteko eta justifikatzeko. Era berean, aurreko urteko diru-sarreraren eta gastuen

aurrekontuaren likidazioa egingo du, eta horretarako Legearen xedapenek agindutakoa beteko du.

Urte bakoitzeko lehen sei hilabeteen barruan, Patronatuak artikulua honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzan, kontuak aurkezteko betebeharra betetzeko, Fundazioei buruzko legean aurreikusita dagoen bezala.

34. artikulua.- Auditoria

Fundazioaren garrantzi ekonomikoa kontuan izanda, eta indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, aditu independenteen kanpo-fiskalizazioaren azterketapean jarri beharko ditu bere kontuak urtero Fundazioak, kontu-auditoria bat eginez indarrean dagoen legerian aurreikusita dagoen moduan.

35. artikulua.- Azkentzea.

Indarreko legerian bildutako kasuetan azkenduko da Fundazioa edo edozein arrazoirengatik ezin badira fundazio-xedeak bete. Desegiten bada, Fundazioaren berezko ondasunak eta eskubideak Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioak agintzen dituen interes orokorreko jardueretara bideratuko dira.

36. artikulua.- Estatutuak aldatzea

Patronatuak Estatutu hauek aldatu ahal izango ditu bilera batean, bere kideen guztizkoaren bi heren bertaratuta edo ordezkaturik daudenean eta bertaratutakoen hi herenen gehiengoak hala erabakitzen badu.

Estatutu hauek KUTXA FUNDAZIOAK 2016ko ekainaren 24ko Patronatu-Batzordean eta EUSKO JAURLARITZAKO Herri Administrazio eta Justiziako Sailburuak 2016ko irailaren 19an emandako Aginduz onartuak izan dira.